

IKASLEEN TXOKOA|47|

ZENBAKIA

INMAKULADA IKASTETXEA



Josune Marin: «Ez dut uste txapelketa batera berriro aurkeztuko naizenik»

/ III

MADDI, SHARAY, JON ETA IKER



**Josu Lazaro:
«Krisia dela-eta
jendeak orain gehiago
hartzten du
autobusa»** / II

MAYRA, DANI, MÓNICA,
ALBA, ELI, JAIONE ETA LEIRE

Euskararen historia/ IV

AMAIA, ANASTASIA,
JON, IKER ETA AINARA

**Spinning,
moda ala kirola?/ IV**

LAURA, RAFFAELLA, DIANA, MÓNICA,
MADDI, DANI ETA SARA

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

INMAKULADA IKASTOLA

HERNANIKO TRAFIKO ALDAKETAK

Josu Lazaro - Garayar enpresako autobus-gidaria:

«Krisia dela-eta jendeak orain gehiago hartzen du autobusa»

Josu Lazaro hernaniarrak urteak daramazki Garayar enpresako gidari lanetan. Berarengana jo dugu, Hernaniko trafikoari eta garraioari buruz zerbait gehiago jakin nahian.

Zenbat urte daramazu autobus-gidari lanean?

Lehenago urte betez aritu nintzen lanean enpresa pribatu batean, baina hiru urte daramatzat zerbitzu publikoan, hemen, Hernanin bertan.

Zer pentsatzen du zure enpresak Hernaniko trafiko aldaketari buruz? Eta zuk?

Orokorrean gustora gaude. Latsunbe auzoan, adibidez, autobusarentzat bide berezia jarri digute, eta hori positiboa da, arinago iristen gara-eta. Gainera, orain, gaueko txandetan ez dugu Izpizua kaletik pasa behar. Lehen, sagardotegi garaian, jendez beteta egoten zen kale hori eta beti izaten genuen zalapartaren bat (botilak botatzen zizkiguten, edo autobusaren aurrean jartzen zen jendea...). Orain, ordea, Elkano kaletik pasatzen gara eta ez daukagu arazorik. Bestalde, kale horretatik ibilbidea motzagoa da, eta guretzat asko da bi minutu lehenago iristea.

Nola moldatzen zarete autobus gidariak horrenbeste autobusekin?

Zerbitzu bakoitzerako autobus bat daukagu eta dena ondo antolatuta dago. Autobus bat hondatzen bada, beti dugu beste bat erreserban, zerbitzurik ez galtzeko.

Zer uste duzu pentsatzen duela jendeak autobus kantitate horretaz?

Zerbitzua ona dela pentsatuko du, nire ustez. Eskaera baldin badago, zerbitzua ere eman behar da. Azken urteotan, krisia dela-eta, jendeak gehiago hartzen du autobusa, eta horrek pozten nau, ingurumenarentzat ere ona delako.

Nola lortu zenuen autobus-gidari izatea?

Elektrizista lanetan ibili nintzen lehen, baina krisia hasi zenean,



Josu Lazarak hiru urte daramatza Garayar autobus enpresan, gidari lanetan.

JOSU LAZARO:

«Askotan jendeak pentsatzen du eserita egoteak ez duela nekatzen. Baina beti adi egon behar dugu, batez ere hirian, eta azkenean, nekatu egiten gaitu».

langileen erdiak bota zituzten lantegitik; ni, besteak beste. Orduan, langabezian nengoela, autobus karneta atera nuen.

Eta (lan berria) gustatzen al zaizu?

Bai, beti hara eta hona nabile-lako, ez naiz batere aspertzen.

Horrez gain, beti nabil harremanetan jendearekin.

Nolako ordutegia daukazu? Nekatuta bukatzen al duzu?

Goiz, arratsalde eta gaueko txandak egiten ditugu. Askotan jendeak pentsatzen du eserita egoteak ez duela nekatzen, baina hori ez da horrela, beti adi egon behar baituzu, batez ere hirian zehar, trafikoa dela, oinezkoak direla... Eta azkenean hainbeste ordu jarraian aritzeak nekatu egiten zaitu.

Zer esango zenieke geltokietan aparkatzen duten gidariei?

Kontu gehiago edukitzeko, kotxea guk pasa behar dugun lekuetan ez uzteko, gure lanari

oztoporik ez sortzeko. Manio-brak ere erreztu diezazkigukete, geltokitik errepidera berriro itzultzean bidea emanaz. Orokorrean, gidariek errepidean ardura gehiago ibili behar dute eta zerbitzu publikoak gehiago zaindu.

Eta autobus bidaiariei?

Agian txartela zertxobait lehenago pasatzeko. Askotan bidaiariak ez dira horretaz konturatzen, baina txartela pixkat lehenago, geltokira iritsi baino lehenago pasako balute, asko lagunduko ligukete.

✍ EGILEAK

Mayra, Dani, Mónica, Alba, Eli, Jaione eta Leire

47

zenbakia

euskara
ari du

JOSUNE MARIN - MUSIKARIA ETA ABESLARIA!**«Ez dut uste txapelketa batera berriz aurkeztuko naizenik»**

Iosune Marinek beste hiru partaiderekin musika talde bat sortu du, *Ai ene* izeneko.

Noiz hasi zinen abesten?

Bakarlari bezala Hernaniko talde batean hasi nintzen abesten, *Beti goruntz* taldean, baina taldea utzi eta bakarlari bezala hasi nintzen; nire abestiak sortzen nituen, txikitatik gustuko izan dut-eta abestea, musika eskolako abesbatza izan nintzenetik.

Zenbat txapelketetara aurkeztu zara?

Aurreko urtean euskal txapelketara aurkeztu nintzen eta hori izan da nire lehenengo aldia, eta bakarra; baina ez dut uste beste txapelketa batera berriro aurkeztuko naizenik.

Zertan zabilta lanean oraingo honetan?

Diska bat nabil prestatzen, txapelketan parte hartzen nuen bitartean grabatutakoa, izan ere. Oraingoz maketa txo bat ari naiz grabatzen, Joxean Goikotxearen laguntzarekin. Nire kantekin osatutako abestiak izango dira.

Bakarlari gisara jotzen duzunean, beste musikariren bat al duzu lagun?

Bai, Aitor Huiziren laguntza daukat, musika eskolako biolinista eta nire abestietako moldaketak egiten dituena.

Diska egiteaz gain, beste proiekturen bat ba al duzu?

Duela gutxi hasi naiz *Ai ene* taldean eta oso gustora nabil; erromeria talde bat gara eta gure kantak sortzen ditugu, pop-rock estiloan. Ni gitarrista eta abeslari bezala nago taldean.

Nolatan hasi zinen taldean? Nola ezagutu zenituen partaideak?

Tuenti delakoari esker, egia esan. Taldean gitarrista bila zebiltzan eta ni animatu nintzen, halako talde batean jotzea esperientzia polita zitekeelakoan, eta hala izan da. Duela urte bat hasi ginen jotzen, hasieran Eneritz eta biok bakarrik, baina gero beste bi partaide gehiago batu zitzaizkigun. Hurrengo



Josune Marin hernaniarra bete-betea sartu da musika munduan, eta dagoeneko bi taldetan ibilia da.

JOSUNE MARIN:

«Duela gutxi hasi naiz *Ai ene* taldean. Erromeria talde bat gara, eta gure kantak sortzen ditugu, pop-rock estiloan».

kontzertua Orion jo behar dugu.

Zergatik taldearen izena?

Ai ene izenari dagokionez, A- Adrian, I- Iosune eta Iñaki, eta Ene-Eneritz izenetatik dator. Pixkat txantxetan egindako izena izan zen hasiera batean, baina azkenean holaxe geratu da. Lau taldekide gara: Eneritz Bengoetxea trikilaria, donostiarra; Adrian Elustondo bajista, andoaindarra; Iñaki Letamendi bateria-jolea, tolosarra; eta ni neu, gitarrista eta ahotsa; Eneritzek ere batzuetan kantatzen du.



Musika talde berria sortu du Josune Marinek. Argazkian, taldearen irudia.

Nola hitz egin dezakegu taldearekin?

Facebook eta Tuenti direlaketan aurki gaitzakezue; edota Youtuben, bideoak ere badaude. Gurekin harremantant jarri nahi izanez gero,

telefonoa eta email-a badugu:

- aienetaldea@gmail.com
- 63306296

Guri Hernaniko San Juanetan jotzea gustatuko litzai guke, Tilosetan, erromeria

bezala. Eta hemengo jaietan jotzeko aukera badugu, zaudete ziur daukagun guztia emango dugula!

EGILEAK

Maddi, Sharay, Jon eta Iker

EUSKARAREN HISTORIA:

Euskara berriz zabaltzen ari da

Iberiar Penintsulako zati haundi-haundi batean hitz egiten zen lehen euskara, eta geroztik pixkanaka lekua galtzen joan da. XXgarren mendean ere, atzeraldi dezentea egin zuen, diktadura garaian.

Euskararen Historia

Lehen, euskara, Iberiar Penintsula osoan hitz egiten zen, baina erromatarrak iritsi zirenean, latina ezarri zuten eta leku askotan euskaraz jarduteari utzi behar izan zioten. Euskal Herrian, alabaina, erromatarrek ia ez zuten boteririk izan eta ondorioz, hemen euskara erabiltzen jarraitu zuten. Erdi Aroan euskarak ez zuen hedatzeko arazorik izan eta hizkuntzak aurrera egin zuen. Baina XX. mendean, Frankoren diktaduran euskara erabiltzea debekatu zela, euskara berriro oso kalteua izan zen: lehen leku gutxitan hitz egiten bazuten, diktadura amaitzean askoz ere leku gutxiagotan mintzatzen zen.

Euskara gaur egun

Egun euskal hizkuntza berriro hedatzen ari da. Gure ustez, euskarak lehen ez zuen gartzeko aukera askorik, ez baitzen ez prentsan ez komunikabideetan erabiltzen. Alabaina gaur egun euskara za-

Euskal komunikabideek asko lagundu dute euskara zabaltzen, eta baita musika taldeek eta kultur munduak, orokorrean

baltzeko tresna gehiago daukagu, komunikabide, prentsa eta kulturaren laguntzari esker. Euskal komunikabideek bultzada handia eman diote hizkuntzari, bai telebistak, ETB 3 eta ETB 1 kateekin; bai irratia, Euskadi Irratia edota Euskadi Gaztea, besteak beste; eta bai prentsak ere, Gara eta Berria egunkariei esker.

Bestalde, Euskal musika taldeek ere asko laguntzen dute euskararen zabalkuntzan. Abestietan ez dute euskara batua bakarrik erabiltzen eta beraz, beste euskalkiak ere zabaltzera eta eza-

gutzero ematen dira. Talde horietako batzuen artean, honako hauek dauzkagu: *Gatibu, SU TA GAR, Ken 7, Berri Txarrak, Mendeku Itxua, Esne Beltza*, eta abar.

Nolanahi ere, gure hizkuntzari bizirik iraunarazteko, garrantzitsua euskaraz ez dakitenak euskara ikastera animatzea da. Espideak dioen bezala *Euskara ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik*. Euskaldun guztion ardurak da, beraz, euskara aurrera eramatea.

Beste autonomia-erkidegoekin alderatuz, honako hau adierazten digute estatistikek: hemen %60k euskara ulertzen eta arazorik gabe hitz egiten du; Katalunian, berriz, %50k. Baina Kataluniara joaten zarenean, katalan gehienek bere hizkuntzan hitz egiten dutela antzematen duzu. Euskadin, haatik, askotan hori ez da gertatzen, biztanleok nahiz eta euskara jakin, erabiltzen ez dugulako. Gure ustez, he-

men ere gure hizkuntzaz egin beharko genuke guztiok, eguneroko gauzetan: lagunekin hizketan gabiltzala, dendetan erosketan, banku eta bulegoetan dokumentu bat betetzerakoan... Modu honetan bakarrik lor dezakegu gure euskara ez desagertzea.

Kuriositateak: -Ba al zenekien...?

- Mesopotamiako lehenengo herrietako bat "Ur" izenekoa zen, zeukan ur kopuru handiarengatik.
- Euskarak ez dauka zerikusirik Europako beste hizkuntzekin.
- Euskararen jatorria ez da zehatza. Batzuek Kaukasotik datorrela diote, beste batzuek, berriz, Penintsula Iberiarrean sortua dela uste dute.

EGILEAK

Amaia, Anastasia, Jon, Iker eta Ainara

Spinning, moda ala kirola?

SPINNING, bizikleta estatiokoan egiten den kirola da. Musikaren erritmoaren arabera mugitzen dira ikasleak, irakasleak egiten dituen pausoak eta daraman erritmoa ahalik eta ondoen jarraituz.

Bizikletak martxa desberdinak ditu, eskulekuan da goen palanka txiki baten bidez alda daitezkeenak. Palankaren posizioaren arabera, erresistentzia gehiago nabaritzen duzu pedaleetan eta, beraz, indar gehiagorekin mugitu behar dituzu hankak. Bizikletaren eserlekua eta manillarraren distantziak pertsona bakoitzarentzat aldatu behar dira, altuerari egokitu.

Normalean, monitorea jartzen da adibide gisa aurreko aldean, ikasle guztiak berak eskatutako erritmo eta erresistentzia antzekoan bizikletaren gainean pedalak eman ditzaten. Beste batzuetan, irakaslea bizikletatik jaisten da, baina ikasleek badakite zer egin behar duten alde aurretik.

Spinning-a 16 urtetik gorakoentzat izaten da. Saioak hainbat denboralditan daude zatituta: gehienetan, klase bakoitza 55 minutukoa da, 50 minutu bizikletan eta 5 minutu beroketak egiteko. Irakasleak jarritako musikaren arabera erritmoa aldatzen da: tekno, trikitixa, salsa... mota askotakoak daude. Musikaren laguntzaz kirolariaren gaitasun desberdinak lantzen dira: erritmo azkarrek eta alaiak animatzen dute jendea sprint-ak egitera, indar gehiago emanez; musika motela baldin bada, martxaren erresistentzia igotzen da eta potentzia edo erresistentzia gehiago izango duzu.

Spinning-ak hankak eta ipurdia lantzeko balio du, besteak beste; baita gorputzaren indarra eta erresistentzia hobetzeko ere, zirkulazioa hobetzeko, barizeak eta zelulitisa kentzeko eta abar. Beraz, dotore eta politik egoteko: zatoz spinning egitera!

EGILEAK

Laura, Raffaella, Diana, Mónica, Maddi, Dani eta Sara

Ikasleen Txokoa - 47 zk.

INMAKULADA IKASTETXEA

